

Antigua

Intxaurreondo

Galiziako Eguna

Larunbatean, hilak 10, Donostiako Galiziako Etxearen ekimenez, VII. Galiziako Eguna egingo da Antiguari. Egun osoan, olagarroa, enpanda eta Galiziako beste hainbat jaki eta edari dastatu ahaliko dira Matia kalean eta Gaskonia plazan jarriko dituzten hiru txosnetan. Bestalde, musika eta dantza izango dira, goizez zein arratsaldez, Gaskonia plazan. 11:30ean, kalejira egingo da auzoan barrena. Jarraian, Donostiako Galiziako Etxeko Triskele dantza taldea ariko da. 19:00etan, Shide taldeak folk kontzertua eskainiko du. Jaiari amaiera emateko, queimada egingo da 20:00ak aldera.



Pilota txapelketa

Ekaineko azken asteartean hasi zen aurtengo Antiguako Pilota Txapelketa. Jubeniletan, 22 urte azpikoan mailan eta seniorretan hamabina bikote parte hartzen ari dira. Partidak asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan dira, 19:00etatik aurrera. Asteotan, ligaxketako neurketak jokatzen ari dira eta finalak abuztuko azken igandean jokatuko dira.

Auzotarrak ez daude ados trenbidea estaltzeko proiektuekin

Asteartean, hilak 6, auzotarren asanbladak deituta, 50 bat lagunek kontzentrazioa egin zuten Zubiaurre zubian. Renfek trenbidea estaltzeko aurkeztutako proposamenekin desadostasuna azaldu nahi izan zuten bertaratutakoek. Auzotarrek aspaldi eskatu zuten trenbidea estaltzeko eta estaltzeko zatiaren gainean plaza egiteko. Renfek azken bi urteetan proiektu bana aurkeztu du, baina intxaurreondotarren arabera, egitasmook "ez dituzte auzoaren beharrak asetzen". Renferen proiektuak aurrera aterako balira, trenbidearen metro oso gutxi estaliko litzuketela eta goialdean egin beharreko plaza txikiak izango litzatekeela diote auzotarrek.

Bestalde, asteartean Zubiaurren elkartu zirenek Hirigintza zinegotzi Jorge Letamendia Renferen proiektuen berri emateko auzora oraindik ere joan ez izana salatu nahi izan zuten.



LEHIAKETA

Hamar sarrera ditugu Yllana-L'Om Imprebis taldearen "Los mejores sketches de Monty Python" antzezlanaren ikusteko. Emanaldia hilaren 13an, asteartea, izango da Antzoki Zaharrean, 20:00etan. Sarrerak eskuratzeke astelehenean, hilak 12, deitu behar da 943 467181 telefono zenbakira deitu behar da 12:00etan.



**Elhuyarrek emandako
Gipuzkoa zure esku
jokoaren irabazlea:**



Mari Jose Leiza